

EUSKARAREN NORMALIZAZIO BIDEAN URRATS BERRIAK*

Josune Ariztondo

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea

1. HIZKUNTZA POLITIKAREN BILAKAERA ETA GAUR EGUNGO EGOERA

Euskararen erabilera gizartean sendotzeko gogoetak eta proposamenak, aspaldikoak ditugu. Eusko Ikaskuntzak 1918an Oñatin ospatu zuen lehen kongresuan esaterako, Luis de Eleizalde argitasun handiz bereiztu zituen hizkuntzaren beharrak edo gaur egun corpus plangintza esango genukeenaren beharrak, eta, era berean statusarenak, bigarren esparru honetan ere helburuak jarritz eta proposamen zehatzak eginez. Hala ere, denok ezagutzen ditugun arrazoiak medio, laister itzali ziren ordungo herri erakundeek (foru aldundiek batik bat) martxan jarri zituzten jardunak (auzoeskolen esperientzia adibidez).

Azken lau hamarkadei begira jarritz, euskararen aldeko jardunak aldi ezberdinak izan dituela esan daiteke. Euskararen hiritartze prozesua zuzpertzeko garaia izan zen lehena, 1960tik 1980ra bitartean, gitxi gora behera, erakundetzearen garaia bigarrena (80ko hamarkadan batik bat), eta «aro berria» deitu dena hirugarrena (gaur egungoa). Badago gure ustez, hainbat ezaugarri euskararen hizkuntza politika berriaren atarian gaudela esateko. Izan ere, azken urteotan metatutako ezagutzak eta eskarmentuak erraztu egin digute euskararen gaineko diagnostikoa eta lehentasunak adosteko bidea. Politika berriaren beharra adierazten duten sintoma edo ezaugarrietako batzuk aipatzearen, esan daiteke gutariko gehienak bat gatozela euskararen erronkarik nagusienetakoak belaunal-

dien arteko jarraipena ziurta-tzean eta erabilera indartzean daudela, edo / eta erronka horiei erantzuteak jokabide aldaketa eskatzen diela, bai erakundei eta bai herritarrei.

Euskararen alde erabili diren ahalegin eta baliabideen ondorioz igo egin da azken urteotan euskararen normalizazio-maila, honela esaterik bada-go behintzat. Horretan ados daude aditu eta analista ia guztiak eta baita bestelako herritarrak ere. Gehienok, aurrera goazela adierazten dugu bai hizkuntzaren beraren garapenean, bai hiztun elebidunen kopuruan, bai erabilera sozialean eta baita euskararentzako erabilera eremuak irabaztean ere.

Baina, egia esan behar bada, ezagutza mailan izandako gorakada bera ez dugu erabileran nabaritu. Izan ere, elebidunek euskara erabili dezaten, hau da, euskara eta gaztelania (edo frantsesa) dakitenek euskaraz egin dezaten, behar-beharrezko da, batetik, solaskide guztiak ere, edo gehienak behintzat, (%75) euskaldunak izatea eta, bestetik, gaztelaniaz edo frantsesez egiteko duten gaitasun bera gitxienez izatea euskaraz egiteko ere. Soziolinguistikoki euskaldunenak diren lekuak alde batera utzita, euskara erabiltzeko dauden aukera errealak oso eremu zehatzetara mugatzen dira oraindik: bikote euskaldunetz osatutako familietara, ia euskaldunetz bakarrik osatutako lagun taldeetara, D eredua nagusi duten eskoletara eta euskaraz egiten diren eskolaz kanpoko jardueretara...

Corpusari dagokionez, esan daiteke gizartean euskararen egoera normaltzen ari den hein berean ari dela euskara bera ere garatzen. Zentzu horretan, aipagarria da zein urte gitxitan bideratu den euskararen estandarizazio prozesua. Euskara batuak egun duen gizarte-onarpena ukaezina da eta euskalkiek duten eta behar duten tokia ere geroz eta gehiago hartzen da aintzakotzat. Dena den, badugu arlo honetan ere zereginik oraindik (hiztegi batua, terminologiaren normalizazioa, estandarretik urrun dauden euskalkien prestigioatzea eta erabilera sustatzea, ...)

Erabilera urriarekin lotuta dagoen beste puntu bat ere aipatu nahi nuke: euskararen erabileraren hedapenak, hizkuntza kalitatearen arazoa ekarri digu. Esan barik doa beste hainbat gai edo arlo gizartean hedatzeak ere ekarri ohi duela kalitate arazorik, aro berriak bere ardatzak ondo sendotzen dituen artean behintzat (kultura eta hezkuntza gaiak gizartean hedatzeak ekarri du seguru asko aurreko aroekiko kalitate «galerarik»....). Arazo hori gainditzeko beharrezkoak diren ahalegin guztiak egin behar-kio dira, euskararen jatorritasuna, zuzentasuna eta egokitasuna ere hedatzen joan daitezen.

* Artikulu hau EHUren udako jardunaldietan emandako hitzaldi moldatu eta eguneratua da.

2. ARO BERRIAREN HIZKUNTZA POLITIKA

2.1. HELBURU OROKORRAK

Esan bezala, funtzio soziolinguistikoetan aurrerapauso handiak eman diren arren, euskararen egoera beste hizkuntza gitxituen eta gitxiagora eto-

**«Badago gure ustez,
hainbat ezaugarri
euskararen hizkuntza
politika berriaren
atarian gaudela
esateko. Izan ere, azken
urteotan metatutako
ezagutzak eta
eskarmentuak erraztu
egin digute euskararen
gaineko diagnostikoa
eta lehentasunak
adosteko bidea»**

rri direnen antzekoa da: euskararen kasuan behintzat, hainbat gizarte esparrutan oso ahula da bere presentzia oraindik eta gehien aurreratu duen eremuan ere, irakaskuntzan esaterako, egoera ez da inola ere erderen parekoa.

Egoera soziolinguistikoko hori abiapuntutzat hartuta, bi diskurtso mota gorpuztu dira urte hauetan euskararen alde lanean dihardugun euskaltzaleon artean: berdintasunaren diskurtsoa batetik eta Koldo Mitxelenak erabilitako hitzez esatearren, «locus»-aren diskurtsoa deitua izan dena, bestetik.

Berdintasunaren diskurtsoan bi maila ezberdin nahasten direla esan daiteke, neurri batean behintzat: maila ontologikoa eta maila soziolinguistikoa. Ikuspegi ontologikotik, hizkuntza guztiek dituzte antzeko ezaugarri eta eskubide orokorrak. Ikuspegi soziolinguistikotik ostera, bi hizkuntza ez daude inoiz egoera berean. Beraz, hizkuntzak ontologikoki berdinak izateak ez du esan nahi soziolinguistikoki ere baldintza berdinetan daudenik.

Eta berdintasunaren diskurtsoak antzu bihur lezake hizkuntza gitxituen aldeko ahalegina. Egunerokotasuna irabazita ez dagoenean arriskutsua izan daiteke aldi berean eta esparru guztietara hedatu nahi izatea, lehen-tasun garbirik finkatu gabe. Zentzu honetan, Koldo Mitxelenak Euskararen Liburu Zuriaren sarreran aspaldi esandakoa nahi dut aipatu: «Gure herriak herrien artean bere tokia behar duen bezala, hizkuntzak ere berea aurkitu behar du hizkuntzen artean: handikeriazko menturarik gabe, iraupena eta hizkuntza segurtatzeko behar adinako tokia (...) diglosiaren purgatorioetatik ihesi goazela ez gaitezen ghettoaren infernuan eror».

Euskararen biziraupena ahalbidetzea da gure helmuga, hau da, euskaraz bizi ahal izateko baldintza nahikoak bermatzea. Eta horretarako ezinbestekoa dugu euskal hiztunon oinarritzko beharrian espezifikoei erantzun-go dien hizkuntza politika bultzatzea.

Politika hori bi printzipio nagusitan nahi dugu oinarritu: printzipio demokratikoan eta ekintza positiboaren printzipioan.

1) Printzipio demokratikoaren arabera, herritarren borondatea dugu oinarritzko legitimazio irizpidea eta hizkuntza politikaren funtsezko erreferentzia. Hizkuntza politikak ere herritarren nahiak hartu behar ditu kontuan, eta hori ez da mekanikoki hizkuntzaren egoera soziolinguistikoarekin asimilatu behar.

Arrazoi zientifiko sendoenetan oinarritutako hizkuntza plangintzarik onenak ere, huts egingo luke herritar gehienak horren alde ez baleude. Hizkuntza politika ezin da inposatu. Gehiengoak nahi duen edo onartzen duen erritmora egokitu behar du. Beraz, hizkuntza plangintzak denen arteko elkar hartzearen ondorio behar du izan, gizarte eta politika mailako adostasunaren ondorio alegia.

2) Ekintza positiboaren printzipioaren arabera, gizarte egoera desberdinetan dauden hizkuntzei ezin zaie hizkuntza politika bera aplikatu, des-

berdintasun hori areagotu nahi ez bada behintzat. Hizkuntza politikak hizkuntza ahulena bultzatzeko bideari ekin behar dio, gure kasuan euskara bultzatzeko bideari, euskara, gaztelaniarekin parekatzen joan dadin eguneroko erabileran. Horretarako, gure ustez, hizkuntza normalizazioaren kultura erakunde publikoen artean eta gizartearen bertan hedatzean datza gakoetako bat. Eta egiteko horretan ere, Euskararen Aholku Batzordearen ekarpena benetan garrantzizkoa izango delakoan gaude.

Hizkuntza politikan diharduten herri agintek azpiegitura eta laguntzak eskaini ditzakete, baina ezer gitxi lortuko dute bestelako erakundeek eta herritarren konpromezurik gabe. Euskararen normalkuntza denon zeregina da, hizkuntza politikarako erakundeena eta gizarte osoarena. Horregatik, ondo zehaztu behar da zein den norberari dagokion erantzukizuna. Eta hemen denonak daude: politikariena, enpresarioena, langileena, funtzionarioena, irakasleena, gurasoena, ikasleena, medikuea, epaileena, aisialdiko begiraleena, dendariena, ertzainena eta, oro har, euskararen eguneroko erabileran eragin zuzena duten protagonista guztiena.

2.2. LEHENTASUNAKETA JARDUERA ESPARRUAK

Euskara iraganeko eta, batez ere, etorkizunerako hizkuntza da: gure arbasoen hizkuntza eta belaunaldi berriena. Eta etorkizuna egin bidean Hizkuntza Politikarako Sailordetzaren ildo nagusiak eta egitasmoak aipatuko ditut lehenik eta, ondoren, ildo eta jardura horietan oinarria izan duen Plan Nagusia zertan den (Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia deitua izan dena alegia) azaltzen ere saiatuko naiz.

Zortzi puntutara ekarri ditut Hizkuntza Politikarako Sailordetzak egun dituen ildo nagusiak, puntu horietan zehazten baita sailordetzaren azken urte eta hilabeteetako jarduna.

I. Euskararen estandarizazioa eta modernizazioa

Mende hasieran eta ia Euskaltzaindiaren sorrerarekin batera ekin zitzaion gai honi. Eta indarberritu ere egin zen 60 hamarkadan, batez ere irakas-kuntzak, literaturak eta euskaldun berriek planteatzen zituzten beharrei erantzutekoasmoz.

Aldaketa handia eragin dio estandarizazioak euskararen egoerari eta, kostu batzuk izan baditu ere, beste hizkuntza askok oso denbora luzean egin izan duen bidea, 20-30 urtetan egin du euskarak. Hala ere, bai ahozko-tasunak bai hainbat erabilera esparruek hizkuntzaren normalizazioan duten garrantzia kontutan hartuz, euskalkien erabilera ere gogoan hartu beharrean gaude:

- Hizkuntzaren errealitatea eta jatortasuna bera ere hortxe ditugulako, alde batetik,
- aniztasuna eta integrazioa gure ezaugarritzat hartu nahi ditugulako, bestetik eta, azkenik,
- etorkizuna irabazi ahal izateko gure hizkuntzaren historia gogoan behar dugulako.

«Soziolinguistikoki euskaldunenak diren lekuak alde batera utzita, euskara erabiltzeko dauden aukera errealek oso eremu zehatzetara mugatzen dira oraindik: bikote euskaldunetz osatutako familietara, ia euskaldunetz bakarrik osatutako lagun taldeetara, D eredua nagusi duten eskoletara eta euskaraz egiten diren eskolaz kanpoko jardueretara...»

«Erabilera urriarekin lotuta dagoen beste puntu bat ere aipatu nahi nuke: euskararen erabileraren hedapenak, hizkuntza kalitatearen arazoa ekarri digu»

Estandarizazioaren esparru honetan, Euskaltzaindia dugu gidari. Eta eza-guna denez, hitzarmen markoa du sinatuta Euskal Autonomi Elkarteko eta Nafarroako herri aginteekin. Bertan, Euskaltzaindiaren ohiko jardunaz aparte, hainbat egitasmo diruz laguntzen dira.

UZEI erakundeak ere aitormen propioa du hizkuntzaren corpus lanetarako; bere lanen artean aipagarrienetakoak, Egungo Euskararen Bilketa Sistematikoa eta Terminologia lanak dira, besteak beste. Erakunde honek ere hitzarmen markoa du sinatuta herri aginteekin.

Estandarizazio arloan toponimiaren gaia ere oinarri-oinarrizkoa dugu. Lehen mailako lana egin ondoren, egiteko geratzen zaizkigunak, hauexek:

- Egindako lanaren zabalkunde-sistema egokitzea eta eguneratzea eta eskala berrietako toponimoak aztertzea. Toponimiak garrantzi berezia du hizkuntza paisaia osatu eta sistematizatzeko orduan. Gainera, toponimiaren disziplina anitza denez eta toponimia gaiak araupetzeko esku-menen banaketa kontutan hartuz, Euskararen Aholku Batzordea eraldatzeko dekretuan Toponimia Batzordea da batzorde berezietan ezartzen den batzorde iraunkor bakarra, eginkizun jakinak dituen.

II. Euskararen ohiko hiztunak eta erabilera eremuak

1 Gune soziolinguistikorik euskaldunenetan, UEMArekin elkarlana are-agotu egin da. Hurrengo urratsa, Udalerrri euskaldunenekin plan berezia antolatzea da.

- Herri langileek eskuartean behar dituzten agiri, txosten, .. eta beste-lakoak euskaratzeko.
- Euskalduntze eta alfabetatze urratsak herri horietako beharretara egokitze.
- Herrian herriko haur eta gaztetxoek aisialdia eta kultur ekintzak sustatzeko.

2. Euskararen familia bidezko jarraipenari ere heldu zaio:

- Hiru esperientzia pilotu daude martxan jadanik hiru herritan.
- Ahoz Aho, belaunez belaun, sentiberatze kanpaina ibiltaria ekoiztu da Hezkuntza sailarekin batera eta Euskal Herri osoko 10.000 biztanletik gorako herri guztietara eramaten ari gara. Sentiberatze kanpaina hau, ekintza osagarriekin eta helduen euskalduntze-alfabetatzearekin lotu nahi da, benetan euskararen erabilera era iraunkorrean sendotzen joateko. Hala ere, ez dugu oraindik lortu ekintza osagarriekin egokiro uztartzea kanpaina ibiltaria udalerrri guztietan.

III. Euskal hiztun berriak

1 Hezkuntza Sailarekin elkarlana berreskuratu nahi da. Hezkuntza da eus-kara berreskuratzeko tresna nagusienetakoa eta zentzu horretan ulertu behar da Hizkuntza Politikarako sailordetzak eta Hezkuntza sailak duten erantzukidetasuna hezkuntza alorreko hainbat gaitan. Bakar batzuk aipatzearen, hor ditugu adibidez ikasereduen emaitzen ebalua-

zioa, irakasleen hizkuntza eskakizunak, eskolaz kanpoko monitoreen hizkuntza eskakizunak, 16-18 hizkuntza ereduak, etabar.. Eta lehen urrats batzuk eman dira (hizkuntza eskakizunen eta euskara agiri desberdinen arteko baliokidetzak bideratzeko, lortutako adostasuna, adibidez).

2. Helduen euskalduntze-alfabetatzearen egokitzapenari ekin zaio, normalizazioa eta homologazioa lortzeko nahiz emaitzak hobetzeko:

- * HABEk datozen urteotan izango duen aurrekontua finkatze bidean jarri da.
- * Sistematik kanpo zeuden AEK eta IKArekin 1995-99rako hitzarmen markoak eta 1995 eta 1996rako konpromezuak sinatu dira.
- * Irakasleen habilitazio prozesua burutzear dago.
- * Sare eta sektore guztietako euskaltegien eta HABEren arteko batzordeak sortu dira emaitzen eta ikas/irakas prozesuen kalitateak hobetzeko.

IV. Euskal esparru berriak

1. Administrazioaren hizkuntza normalizaziorako bigarren. plangintzaldiaren funtsezko oinarriak, hauexek dira:

- a- Herritarrei eman beharreko zerbitzuak euskaraz izan daitezen ziurtatzen joatea.
- b- Administrazioan, euskaraz lana egin ahal izateko urratsak ematea. Herritarrei begira egiten dena eta baita barneko batzorde, bilera eta bar ere euskaraz egin ahal izateko prestakuntza, trebakuntza eta laguntza beharrezkoa izango da.

Egitasmoak:

- II. plangintzaldiaren oinarriak adostu dira Gobernuan, eta Legebiltzarrean adostasun maila zabaldu egin da.
- Ertzaintzaren euskalduntze plangintza 1997. Abuztuan jarriko da martxan dekretu bidez. Bitartean, ertzainen euskalduntze eta alfabetatze prozesuei eman zaie hasiera, horretarako borondatea erakutsi duten ertzainen artean hautatu den taldeari.
- Osakidetza lehen datu bilketa hasita dago eta Eusko Legebiltzarrak eskatu dio Osasun sailari data jar dezala bere hizkuntzaren normalizazio plana araupetzeko.
- Erabilera planak martxan daude hainbat udaletan, bai administrazio barruan eta baita beste esparrutan ere (kirola, aisialdia), eta horretarako izan dute beste herri aginteen laguntza, bai finantzazio mailan eta bai giza baliabideetan ere.

2. Euskararen erabilera-programak lan / zerbitzu eremuan:

- Lehen epealdiak burutu dira hainbat enpresatan. Beste batzuk hasi berriak dira eta badaude programan sartzeko eskaria egina dutenak.
- Horien ebaluazioa aurkezteko eta datozen urteetarako oinarritzko metodologia finkatzeko mintegia burutuko da programa hauetan ardu-

«Bi diskurtso mota gorpuztu dira urte hauetan euskararen alde lanean dihardugun euskal-tzaleon artean: berdintasunaren diskurtsoa batetik eta Koldo Mitxelenak erabilitako hitzez esatearren, «locus»-aren diskurtsoa deitua izan dena, bestetik»

**«Berdintasunaren
diskurtsoak antzu bihur
lezake hizkuntza
gitxituen aldeko
ahalegina.
Egunerokotasuna
irabazita ez dagoenean
arriskutsua izan
daiteke aldi berean eta
esparru guztietara
hedatu nahi izatea,
lehentasun garbirik
finkatu gabe»**

rak dituzten alde guztiekin.

3. Euskara eta Teknologia:

- «Euskara atzo eta gaur» CD-ROMa kaleratu da Euskal Herriko hiru hizkuntzetan. Material hori osatu eta INTERNETen jartzeko urratsak ematen ari gara.
- WORD6.0, WINDOWS95 eta EXPLORER programak euskaraz jarri dira. Hala ere produktu hauek sare komertzialean jartzeak hainbat arazo ekarri du; produktu berri hauen kasuan, bikoitza da erronka: alde batetik, hornitzaileak euskaraz dagoen sofwar-az jakitun egon daitezen eta, bestetik, bezero euskaldunak informatzeaz gain, euskarazko produktuak eska ditzaten sustatzea.

4. Ikusentzunezkoak:

- Duela bederatzi urte hasitako programa honi esker 80 bat euskarazko bideo daude merkatuan.
- Euskara Zinema Aretoetara izeneko proiektuari ere ematen zaio dirulaguntza. Jakina denez, proiektu honek eskolorduetan eskaintzen die eskolume eta gaztetxoei zine aretoetan. Hala ere, erronka nagusia eskolaz kanpo eta zinema komertzialak dituen ohiko ordu eta egune-tan ere zinea euskaraz ematea da.

5. Euskal prentsa idatzia.

- Euskarazko 39 aldizkari subentzionatu ziren iaz, 17 nazio mailakoak eta 22 udalerri mailakoak. Aurten ere, programa horrekin jarraitzen dugu.
- Euskaldunon Egunkariak berriz, 120 miloetako dirulaguntza zuzena jaso zuen 1995ean Eusko Jaurlaritzatik eta aurten ere dirukopuru berbera jasoko du.

V. Euskal Herri osoko hizkuntza bilakaeraren ezagutza (I+G)

1. Euskararen Jarraipena izeneko liburua argitaratu zuen Hizkuntza Politikarako Sailordetzak 1995ean. Bertan, Euskal Herri osoko lehen sozio-linguistikako inkestaren emaitzak jaso dira E.H.ko hiru hizkuntzetan.
2. II Soziolinguistikako inkestari dagokionez, lehen emaitzak aurten bil-du dira eta prozesatzen ari gara, urtea amaitu aurretik datu guztiak ezagutzera emateko. Asmoa:
3. II. Soziolinguistikako Mapa ere egina dago jada: EAEko euskararen bi-lakaera herriz herri aztertzeaz gain, eskualdeko datuak ere eskainiko dira, 1981, 1986 eta 1991ko zentsuen arabera eta 10.000 biztanletik go-rako udalerriak auzoka. Urte amaierarako argitaratzeko moduan egon-go da EUSTATen «Hedapen» sisteman.
- 4 Hizkuntza adierazleei dagokienez: euskararen erabilera jasotzen ari gara eremuz eremu (hezkuntza, administrazioa, komunikabideak, liburugin-tza, etab.). (Euskararen egoeraz jakiteko) 50 adierazle baino gehiago aukeratu dira horretarako.

5. Euskalgintzan diharduten elkarten direktorioa ere osatzen ari gara: Euskal Herri osoko euskara elkarten fitxak sartu ditugu.

VI. Euskararen sustapena gizartean

1. Euskararen berripapera: Euskarari buruzko informazio orri hau, hilero, 12.000 hartzaileri bidaltzen zaie euskaraz eta 4.500eri gaztelaniaz. Sei hilero, beste 8000 banatzen dira ingelesez atzerrian.
2. Hitzaro eta Lengua Viva telebista saioak: ETBekin egindako hitzarmenari esker, orduerdiko 15 programa egin ziren 95eko urritik abendura bitartean ETB1erako euskaraz eta ETB2rako gaztelaniaz, euskararen erabilera normaltzeko Euskal Herri osoan egiten denaren berri emateko herritarrei. Aurten 42 programa osatuko ditugu euskaraz eta beste hainbeste gaztelaniaz.

VII. Euskalgintza ahaleginen uztarketa.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia zehaztea da erronka nagusienetakoa. Plangintza hori hizkuntza politikarako arduradunek euskararen berreskurapen prozesua zuzentzeko izango duten tresna nagusia da, eta honako honetarako balio behar du:

- Euskal Herriko hizkuntza egoeraren eta bilakaeran aurkitzen diren arazo nagusiak aurrikusteko.
- Lortu nahi diren helburuak finkatzeko.
- Bitartekoak antolatzeke (egitarau nagusiak eta aurrekontuak).
- Ejekuzioaren ardurak banatu eta egituratzeko.
- Lankideen aukeraketa, prestakuntza eta motibazioa lantzeko.
- Jarraipen eta ebaluaziorako irizpideak eta prozedurak antolatzeke.

Horretarako hain zuzen jarri berri da martxan Euskararen Aholku Batzordea.

VIII. Euskara nazioarteratzea

Inguruko eta urruneko hizkuntzen berri izateko, alde batetik, eta gurea ere kanpoan ezagutu dezaten bestetik, beharrezko ikusi izan da beti beste nazioekin elkarlanerako bidea jorratzea. Eta horretan dihardugu orain ere, lekuko gisa, aipamen batzuk bakarrik:

1. Euskal Herria, Frisia, Gales eta Irlandaren arteko ikerketa konparatiboa.
2. Hego Ameriketako Bolibia eta Kolonbiako herri aginte eta kultur erakundeekin harremanak.
3. Expolangues eta Expolingua azoketan euskarak eta Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikak izaten duten presentzia.
4. Hizkuntza Plangintzari buruzko mundu mailako VIII. biltzarra (1999). Euskal Herrian izango da.
5. Argentinan eta Boisen programa bereziak, gaztetxoak eta helduak euskalduntzeko. Programa hauetan irakasleen trebakuntza eta eguneratzea ere lantzen dira.

«Hizkuntza politika ezin da inposatu. Gehiengoak nahi duen edo onartzen duen erritmora egokitu behar du. Beraz, hizkuntza plangintzak denen arteko elkar hartzearen ondorio behar du izan, gizarte eta politika mailako adostasunaren ondorio alegia»

«Hezkuntza da euskara berreskuratzeko tresna nagusienetakoa eta zentzu horretan ulertu behar da Hizkuntza Politikarako sailordetzak eta Hezkuntza sailak duten erantzukidetasuna hezkuntza alorreko hainbat gaitan»

3. HURRENGO URTEOTAKO HIZKUNTZA PLANGINTZA ETA EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA

Euskararen Aholku Batzordearen egiteko nagusiak bi dira: alde batetik, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiari buruz proposamenak egitea eta, bestetik, planaren betetze-maila neurtzeko ebaluazio irizpideak proposatzea.

Batzordekideen artean hamalau dira herri aginteen eta erakundeen ordezkariak eta beste hogeitabost gehiago euskararen erabilera esparruetan dabiltzan pertsona ezagunen artean aukeratuak, hain zuzen ere, euskal kulturgintzan, kirol eta aisialdian, helduen euskalduntze eta alfabetzean, komunikabideetan, hezkuntzan, unibertsitate eta abarretan dihardutenak.

Datorren urtearen amaierarako nahi da burutu Plan Nagusi hori. Horretarako, honako urratsak emango dira, hurrenez hurren:

• **EHko hizkuntza egoera ezagutu eta bilakaeran azaltzen diren arazo nagusiak aurreikusi ondoren, epe motzera eta erdira erdietsi nahi diren adostutako helburuak zehaztu.**

• Euskara biziberritzeko aurrekontuen azterketa sakona egin eta egungo egitarauak etorkizunean izan dezaketen eragina aurreikusi eta lehentasunezko egitarauak finkatu.

• Koordinazioa hobetzeko eta bikoizketak ekiditeko herri aginteei eginiko proposamenak aztertu.

• Herri aginteen eta herri elkarteetan lana uztartzeko urratsak sendotu, eta, amaitzeko,

• Plan Nagusiaren jarraipen eta ebaluaziorako irizpideak adostu.

Guzti hori egiteko, batzordekideen iritziak eta ekarpenak ezinbestekotzat jotzen dira. Horrexegaitik, Euskararen Aholku Batzordea eraldatzeko dekretuaren 11. atalak dioenez, gai zehatzei buruzko lanak eta txostenak egiteko, batzorde-atal bereziak eratuko dira. Batzorde horietan, batzorde osoko kideez aparte, kanpoko aditu / arituek ere parte hartuko dute.

Dekretu berean esaten da Toponimia Batzordea eratuko dela, honako lau egiteko nagusi hauekin:

1. Toponimoak bildu, berreskuratu, zerrendatu eta gordetzeari buruzko aholkuak ematea Administrazioari.
2. Toponimoak normalizatzeko aholkuak ematea (eskumena administrazio ezberdinetan baitago banatuta).
3. Mapetan, liburuetan, errotuluetan eta komunikabideetan toponimoak erabiltzeko eta idazteko arauak proposatzea.
4. Toponimoen izen ofizialak arautzeko xedapenei buruzko irizpenak ematea.

Toponimia Batzordeaz gain beste hiru batzorde-atal berezi antolatu dira:

1. *Euskararen jarraipena eta geroratzearen* gaineko hausnarketa eta proposamenak landuko dituen batzorde-atala. Aztergai edo ponentzia nagusiak honako hauek izango ditu :

- Euskararen galerak nola eten.
- Belaunez belaun euskararen familia bidezko jarraipena nola bermatu euskaldun zahar zein euskaldunberrien artean.
- Eskolaren zein helduen euskalduntze-alfabetatzearen bidezko hiztun berriak irabazten jarraitzeko egitarauak hobetzea.

2. Bigarren batzorde-atal bereziak, *Euskal kulturgintza eta komunikabideak* izango ditu langai, ondoko alor hauetan:

- . Euskararen berreskurapena telebista bidez.
- . Euskararen berreskurapena irrati bidez.
- . Euskal kulturgintza eta ikusentzunezkoak.
- . Prentsa euskaraz.
- . Liburugintza eta bereziki euskal liburua.

3 Hirugarren batzorde-atal bereziak *Euskararen erabilera* aztertuko du hainbat lehentasunezko alorretan eta etorkizunerako proposamenak ere egingo ditu. Honakoak ditu aztergai:

- Euskal hiztunik gehien duten udalerrien egoera.
- Gazteen aisialdia eta euskara.
- Kirola eta euskara.
- Euskara eta teknologia berriak.
- Euskararen erabilera herri administrazioetan.
- Erlijio mundua eta euskararen erabilera.

Eskuartearen darabilgun epealdi honetan EAK-ko hainbat kide batzorde langai desberdinei dagozkien txostenak aztertzen ari dira, azterketa hori eta bakoitzak egingo dizkion aldaketa proposamenak edota oharrak hiru ataletan zehaztuko direlarik:

- a) Gaiaren bilakaera.
- b) Egungo egoera: puntu sendoak eta ahuldadeak.
- c) Datozen urteetarako proposamenak.

Hurrengo epealdietan, euskara biziberritzeko helburuak finkatu, lehentasunezko ildo nagusiak eta ekintzak aukeratu eta ebaluazio irizpideak erabakitzeari ekingo zaio. Helburua, arestian esan bezala, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia egitea eta Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Batzordeari proposatzea da, honek onar dezan. Eta guztia, aurrikusitako epean. Hala izan dadila.

«Osakidetzan lehen datu bilketa hasita dago eta Eusko Legebiltzarrak eskatu dio Osasun sailari data jar dezala bere hizkuntzaren normalizazio plana araupetzeko»